

# 2017ko MARTXOAREN 6ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua, 2017ko martxoaren 6an, astelehenez, 19:00etan Herriko Etxean bildu da, Vincent BRU Jaunaren lehendakari dela.

Hor direnak: Vincent Bru jauna, Auzapeza, Bernadette Jougleux anderea, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Henri Saint Jean jauna, axuantak, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Jean-Noël Magis jauna, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Véronique Larronde anderea, Camille Jenvrin jauna, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Barkatuak: Christian Devèze jauna, Eliane Aizpuru anderea, axuantak, Anne-Marie Pontacq anderea, Argitxu Hirigoyen anderea, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Pascal Bourguet jauna, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Christian Devèze jaunak Vincent Bru jaunari, Eliane Aizpuru andereak Didier Irastorza jaunari, Anne-Marie Pontacq andereak Christiane Hargain-Despéries andereari, Argitxu Hirigoyen andereak Vincent Goytino jaunari, Corinne Othatceguy andereak Eliane Noblia andereari, Peio Etchelecu jaunak Pascale Lespade andereari, Maryannick Hirigoyen andereak Véronique Larronde andereari, Pascal Bourguet jaunak Carmen Gonzalez andereari, Argitxu Hiriart-Urruty andereak Nathalie Aïçaguerre andereari.

Auzapez jaunak, baliozko arrazoinak, bereziki bere familiako kide bat zendu ondoren Christian Devèze jaunak, eman ondoren jende anitz eskas dela ohartaraziz ireki du garrantzia handia duen Herriko Kontseiluko saioa. Ondorioz aipaturiko axuantak ezingo du administrazioa kontuen eta aurrekontu orientabideen saioa gidatu. Auzapezak azken honek usaian betetzen duen egitekoa betetzeko ahaleginak egingen ditu eta, behar den dohaina erakutsiko ez badu ere, Herriko Kontseilua ontsa iragaten dela bermatu behar da.

## **1 – Saioko idazkariaren izendatzea.**

Bertan diren kideek, Véronique Larronde anderea Anderea saioko idazkari **aho batez** izendatu dute.

## **2 – Azken saioko bilkura agiriaren onartzea.**

Auzapez jaunak, Kontseiluko kideei iragan 2017ko otsailaren 20ean burutu zen bilkurako agiriari buruzko oharrik baden galdegin die.

Ez da neholako oharrik izan, aitzineko saio agiria aho batez onartu da.

### **3 – 2016ko kudeaketa kontuen bozketa.**

Auzapezak oroitarazi du afera ez dela herriko administrazio kontuen inguruko iritzia ematea, finantza publikoetako zerbitzuek aurrekontu nagusiari eta pertsonalizatuak ez diren zerbitzuei buruzko emaitzak, hau da, aurrekontu gehigarriei buruzko emaitzak herriari helarazi dizkiotela egiaztatzea baizik. Herriko Kontseiluko kide guzietan dokumentu hori jaso duketela gehitu du, aurkeztuko dituen administrazio kontuen dokumentu bera dena.

Auzapez jaunak, altxor publikoarekin eta herriko kontabilitatearekin bat datozen kudeaketa kontuak onartzeko proposamena luzatu du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

### **4 – 2016ko administrazio kontuen bozketa.**

Administrazio kontua aurkeztuko delarik, Auzapezak 2016 urtean egin duen kudeaketaren kontrolatzeaz ari garenez, azken hau ez da aipagai horretarako lehendakari izanen eta, ondorioz, bozketa bat egingen da Herriko Kontseiluko kide batek lehendakari postu hori bete dezan.

2016ko administrazio kontuen aztertze saioko lehendakari izateko, lehen axuanta den Bernadette Jougoux anderearen izena proposatu du eta beste hautagairik denez galdegin du.

Bernadette Jougoux anderea saioko lehendakari izateko aho batez hautatua izan da. Hitza Auzapez jaunari eman dio, herriko hiru aurrekontuendako 2016ko administrazio kontuak aurkez ditzan: aurrekontu nagusiarena eta gehigarriena.

Philippe Bacardatz jauna gelan sartu da.

#### **Aurrekontu nagusia**

Auzapez jaunak funtzionamenduaren eta inbestimenduaren atalak aurkeztu ditu.

Funtzionamendu diru sartzek 6.701.319,55 €-koak dira, atal bereko xahutzeak 5.449.417,61 €-koak direlarik, ondorioz atal horrek 1.251.901,94 €-ko soberakina du.

Inbestimendu diru sartzek 3.371.630,69 €-koak dira, atal bereko xahutzeak 4.225.000,97 €-koak direlarik, ondorioz atal horrek 853.370,28 €-ko defizita uzten du.

Emaitza orokorrak 398.531,66 €-ko soberakina agerian ezartzen du.

Auzapez jaunak, funtzionamendu eta inbestimendu ataletako kontu guzietan irakurketa egingen du, bai diru sartzeei baita xahutzei ere.

Auzapezak ohartarazi duenez, bozkatu baldin bazen ere, herriak ez du, 2016 urtean zehar, kontua orekatzeko mailegurik hartzerik ez eta administrazio diruzaintza linea erabiltzerik izan.

Inbestimendu diru sartzeei dagokienez, Michelena jaunak 3.371.630,69 €-koak diren diru sartzeei eta 6.628.456,00 €-koa den aurrekontu nagusia gehi erabaki aldarazleen arteko desberdintasunaren arrazoia zein den galdegin du.

Bardin jaunak esplikazioaren parte bat eman dio: mailegu eta asimilaturiko zorrei buruzko 16 kapituluan 1.247.556 € aurreikusi ziren eta 2016ko administrazio kontuan 2.556 € agertzen dira, hots, 1.245.000 €-ko desberdintasuna.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak, herriak Errobi Herri Elkargotik 984.523 €-ko partaidetza funtsa jaso zuela gehitu du, aurrekontuan 1.703.649 € aurreikusi zirelarik. Operazio guzi horiek ez dira osotasunean gauzatu eta eskas dena, operazioak finitzean, 2017an berreskuratuko da. Gainera, aurrekontu nagusian egiten den kontabilitate idazketa sistematikoa kontuan hartu behar da, hala nola 021 kapituluan, funtzionamendu ataletik inbestimendu atalera eginiko 820.000 €-ko biramendua, diru sartze efektiboa denez ez dena administrazio kontuan agertzen.

Kontu guzien irakurketa finitzean, Auzapez jaunak aurtan, gardentasunaren izenean, usaian kontseilari guziei ematen zaizkien dokumentuez gain beste bi dokumentu gehitu direla azpimarratu du: inbestimendu diru sartzeen eta inbestimendu xahutzeen xehetasunak.

Michelena jaunak, 2016ko inbestimendu programen taulako ADAP lerroan “\$” deritzon ezezagun bat badela ohartarazi du eta zeri dagokion galdegin.

Auzapez jaunak inpresio akatsa dela eta berez elizako obrei dagokiola ihardetsi du.

### **Saneamendu kolektiboaren aurrekontu gehigarria**

Auzapezak funtzionamendu eta inbestimenduaren atalak aurkeztu ditu.

Funtzionamendu diru sartzeak 603.036,59 €-koak dira, atal bereko xahutzeak 546.224,90 €-koak direlarik, ondorioz atal horrek 56.811,69 €-ko soberakina du.

Inbestimendu diru sartzeak 1.617.244,09 €-koak dira, atal bereko xahutzeak 427.724,48 €-koak direlarik, ondorioz atal horrek 1.189.519,61 €-ko soberakina du.

Emaitza orokorrak 1.246.331,30 €-ko soberakina agerian ezartzen du.

Auzapezak, Christian Devèze jauna presente izanen delarik batzordean finkatu beharko den saneamendu kolektiboko xahutze programarendako mailegurik ez dela egin beharko egiaztatu du.

Auzapez jaunak funtzionamendu eta inbestimendu ataletako kontu guzien irakurketa egin du, bai diru sartzeena baita xahutzeena ere.

Bacardatz jaunak, 56.000 €-ko funtzionamendu soberakina ikusirik saneamendu zerga apalduz kanboarrekiko keinu bat egitea posible litzatekeenez galdegin du.

Auzapez jaunak, oharra zentzuzkoa dela baina kanboarrekin ez dela “yoyo” batekin egiten den bezala jokatu behar ihardetsi dio. Funtzionamendu soberakin hori behin behinekoa edo sistematikoa den begiratu behar da. Bigarren kasuan, oharra kontua hartzeko litzateke eta horri dagokion batzordean Christian Devèze jaunari galdera hori pausatzen ahalko zaio. Haatik, soberakin hori behin behinekoa baldin bada, ezinezkoa da zerga apaltzea gero berriz emendatzeko. Kolektibitate guzietan zuzentzeko kudeaketa gauzatu behar da eta herritarrek ez lukete zergak behin eta berriz apaldu eta emendatzea onartuko.

Auzapez jaunak gehitu du, soberakin bat behin eta berriz egiaztatuz gero, herriak kanboarregandik eskuratzen duen zerga hobe neurtu beharko dela.

Bacardatz jaunak dio irabazia dena irabazia dela. 2015ean soberakina 73.000 €-koa zen, 2016an 56.000 €-koa, kanboarrek keinu ttipi bat onartuko dute gero emendatu behar bada ere.

Auzapaz jaunak bere proposamena ontsa ulertu dela eta saneamendu arduradunari helaraziko zaiola erantzun dio.

### **Hilobi kolunbarioen aurrekontu gehigarria**

Auzapez jaunak funtzionamendu atala aurkeztu du eta, Altxor Publikoak galdeginik, herriak saltzeko dituen hilobi eta kolunbarioendako inbestimendu atalik ez dela zehaztu du

Funtzionamendu diru sartzeak 13.546,00 €-koak dira, atal bereko xahutzeak 55.277,44 €-koak direlarik, ondorioz atal horrek 41.731,44 €-ko defizita uzten du.

Auzapez jaunak, herriak 56.530 €-ko balioarendako hilobi eta kolunbario erreserba duela adierazi du.

Ez denez 2016 urteko administrazio kontuari buruzko beste galderarik pausatu eta legeak xedatzen duen bezala, Auzapez jauna gelatik atera da eta saioko lehendakari den Jougleux andereak aurkezturiko administrazio kontu desberdinak atalka bozkatzera deitu du.

### **Aurrekontu nagusia:**

– Funtzionamendu atala: **gehiengoak** onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

– Inbestimendu atala: **gehiengoak** onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

### **Saneamendu kolektiboaren aurrekontu gehigarria:**

– Funtzionamendu atala: **aho batez** onartua

– Inbestimendu atala: **aho batez** onartua

### **Hilobi eta kolunbario aurrekontu gehigarria**

– Funtzionamendu atala: **aho batez** onartua

Auzapez jauna gelan sartu da eta Christian Devèze jauna eskertu du, saioko hizlari ez bada ere zerbitzuetako zuzendari nagusiarekin eta diruzainarekin txosten guzi horiek prestatu baititu. Aurten txostenak biziki ontsa osatuak izan direla zehaztu du.

## **5 – 2017ko aurrekontu orientabideak**

Auzapez jaunak oroitarazi du, aurrekontu orientabideak 3.500 biztanle baino gehiago duten herriendako Lurralde Elkargoetako Kode Nagusiaren baitako betebeharrak direla baina aurten

berrikuntza bat badela: oraindik aitzina, exekutiboak aurkezturiko aurrekontu orientabideei, urte anitzeko engaiamenduei, egiturari eta zorraren kudeaketari dagokion txostenaren inguruko azterketa egitea elkargoei inposatzen dien 2015eko agorrilaren 7ko NOTRe legearen aplikatzea. 2015eko legea baldin bada ere, ez zen 2016an aplikatu 2016ko ekainaren 24ko aplikatze dekretua delako. Ondorioz, eztabaida gauzatu dela gogoan hartuko duen delibero batekin finituko den legearen lehen aplikatzea da. Ez gara eztabaidaren edukiaren aldeko edo aurkako delibero batez mintzo baina, NOTRe legeak eta 2016ko ekainaren 24ko dekretuak egundantik derrigortu dituen dokumentuekin eztabaida gauzatu dela kontuan hartu behar du Herriko Kontseiluak. Txosten horren baitakoak izan behar dira, funtzionamendu zein inbestimendu mailako xahutze eta diru sartzeko aurreikuspenen bilakaerari buruzko aurrekontu orientabideak, urte anitzeko engaiamenduen aurkezpena, indarrean den zorraren egiturari buruzko informazioak eta kudeaketari eta aurrekontu proiektuarendako perspektibak, bereziki aurrekontu proiektuekin zerikusia duen agintaldi bukaerarako kolektibitateak finkatu dituen zorraren nondik norakoak.

Auzapez jaunak, herriko kontseilari guzietan bi dokumentuak eskuratu duketela zehaztu du: urte guzietan banatzen den usaiako dokumentu bat eta NOTRe legea eta honen 2016ko ekaineko aplikatze dekretua kontuan hartzen duen dokumentu berri bat, aurrekontu orientabideen txostena. Azken dokumentu hori da aztertuko dena eta ondotik Herriko Kontseiluak ontsa iharduki duela erran beharko da.

Txosten horrek bost atal ditu:

#### 1. Ingurune ekonomikoa eta 2017ko finantza lege proiektua:

Hazkundera ez nahi bezain fite heldu. Hauteskundeei loturiko dudedekin, Estatuaren zuzkidurak gutitzen segitzen duen finantza lege proiektuarekin, partikulariki Funtzionamendurako Eraitza Orokorrena (FEO, frantsesez DGF), eta bizitegi zergaren eta lur zergaren dispensen luzapenarekin, politika mailan aski korapilatsua den testuingurua da. Ondorioz, testuingurua hori ez da biziki baikorra.

#### 2. Herriaren finantza egoera:

Kanboko finantza egoera funtzionamendu eta inbestimendu gisa aztertzen da. Auzapez jaunak, 2012-2016 urteen arteko aurrekontu oreka handien bilakaeraren analisia irakurri du. 2012-2016 urteen arteko funtzionamenduaren finantza azterketak, diru sartzeko bilakaera xahutzeena baino apalagoa dela erakusten du. 2016an, partaidetza funtsei esker, herriko diru sartzeko xahutzeek baino kurba handiagoa jarraitu zuten. GEHZaren kalterako, herriak bere gain hartu duen AGAZ (frantsesez ALSH) eskumena bezalako aldagaiak daude. Elkargoarendako neutroa ez den leku aldaketa eskubideen emendatzea eta baita egonaldi zergaren emendatzea ere kontuan hartu behar dira. Xahutze berriak izan dira, partikulariki eskola erritmoen berritzearekin, zeinak, laguntza guztiak kendu ondoren, herriarendako 40.000 €-ko karga garbia suposatzen duen. Haurtzaindegia Herri Elkargo bakarraren esku gelditu denez eta aisialdi zentroa herriak bere gain hartu duenez, GEHZarendako diru laguntza apaldu da.

Auzapez jaunak, 2016tik 2016ra doazen ratioen inguruko puntua egin du:

- 2016an, egiazko funtzionamendu xahutzeek biztanleko 754 €-ko xahutzea suposatzen zuten, 2015ean biztanleko 1.049€-ko xahutzea suposatzen zutelarik, estratuaren batz bestez nazionalarekin bat doazenak (2016ko datuak ez dira ezagutzen).
- 2016an, egiazko funtzionamendu diru sartzeko biztanleko 960 €-ko diru sartzeko suposatzen zuten, 2015ean biztanleko 1.049 €-ko diru sartzeko suposatzen zutelarik, estratuaren batz bestez nazionalarekin bat doazenak (2016ko datuak ez dira ezagutzen).
- 2016an, langileendako xahutzeek biztanleko 352 €-ko xahutzea suposatzen zuten, 2015ean biztanleko 532 €-ko xahutzea suposatzen zutelarik, estratuaren batz bestez nazionalarekin bat doazenak (2016ko datuak ez dira ezagutzen). Kanbon, langile kargek, egiazko funtzionamendu xahutzeen % 46,70 suposatzen dute, 2015ean nazio mailako estratu demografikoaren batz bestea %

50,67koa zelarrik. Auzapez jaunak gehitu du 2017 urterako langile kargak anitz emendatuko direla, nazio mailako sindikatuek galdeginik, egun lansariaren baitan kontuan hartuak diren eta, ondorioz, kotizazio pean diren ordainsariak berriz kalkulatu baitira.

- 2016ko abenduaren 31n, 2016 urteko zorra biztanleko 416 €-koa zen, 2015ean biztanleko 862 €-koa zelarrik, estratuaren batuz beste nazionalarekin bat dona (2016ko datuak ez dira ezagutzen). 2015ean, zorra kitatzeko behar zen urte kopurua 2,76koa zen, estratuaren maila nazionala 4,33koa zelarrik. 2016an herriarendako urte kopurua 1,78koa zen. Zorpetze egoera biziki erosoan dugu beraz.

Inbestimendu atalean muntadurendako xahutzeak + 843.000 €-z emendatu dira, % 38a suposatzen duena. Inbestimendu diru sartzeak ere +1.643.000 €-z emendatu dira. Errobi Herri Elkargoarengandik eskuraturiko partaidetza funtsari esker, herriak inbestimendu gehiago egin ahal izan du.

Mailegu mailan, 2012az geroztik lau mailegu hartu dira, xehetasunak dokumentu gehigarrietan atzeman daitezke. Herriak % 3 edo 4ko interes tasa duten maileguak berriz negoziatzeko asmorik duenez galdegina izan da. Erantzuna ezezkoa izan da, elkargoa maileguaren azken partean delako eta, ondorioz, kapitala baizik ordaintzen ez duelako eta ez interesak.

### 3. 2017ko aurrekontuaren orientabideak:

Herriak zerga tasak hein berean atxiki nahi ditu, herritarrengan den presio fiskala ez astuntzeko, kolektibitateak inbertsioak egiten segitu behar duenez inbestimendu maila ona mantentzeko, hauteskunde kanpainan zehar hitz emaniko inbestimendu programak gauzatu behar direlako, zerbitzu kontratuak (asegurantza, mantenua...) berriz negoziatuz posibleak egitea xerkitzeko, irabaziak (funtzionamendu soberakinak) eksklusiboki inbestimenduari esleitzeko, herriaren autofinantzaketak inbertsioak egitea ahalbidetzen baitute, eta, beharrez, finantza mailan diren interes tasa apalak baliatuz bankuen laguntza eskuratzeko.

Auzapez jaunak, aurrekontu orientabide horiek ez direla 2017 urteko aurrekontua zehaztu du, osatze bidean den 2017 urteko aurrekontu nagusia prestatuko delarik zehaztu beharko diren orientabide soilak dira. Hala ere, funtzionamendu diru sartzeek beherako joera mekanikoa pairatuko dute, izan ere Funtzionamendu Zuzkidura Orokorren gutitzea segurua da (- 56.000€ 2017an) eta, eskumen esku aldaketagatik, 2016 urteari konparatuz 2017 urterako konpentsazio esleitzea apalduko da. Funtzionamendu xahutzeak zerbitzu guzietan berriz eginen dituzten indarrak markaturik izanen dira, xahutze horiek 2016 urtekoen hein berean atxikitzen ahalegintzeko edo hauen emendatzea ahal bezain bat mugatzeko gisan. Herriak, 2017ko aurrekontuarendako 6.085.000 € aurreikusten ditu, bai funtzionamendu diru sartze gisa eta bai xahutze gisa.

Auzapez jaunak 2017 urterako aurreikusiak diren muntaduren aurkezpena egin du, operazio bakoitzarendako lanen eta obralaritzaren zergarik gabeko prezioa eta herriak eskuratzeko espero duen zergarik gabe kalkulaturiko diru laguntzak zehaztuz:

- Errobi Herri Elkargoak oraindik erabaki gabe duen karabanendako eremua antolatzeko lur baten erostea: zergarik gabeko 383.200 € (22.100 €-ko laguntza)
- Errepideko geltokiaren antolaketa: zergarik gabeko 72.700 € (84.700 €-ko laguntza)
- Sorhainde plazaren antolaketa: zergarik gabeko 244.800 € (112.600 €-ko laguntza)
- Argizatze publikoaren segurtatze eta hobetze energetikoa: zergarik gabeko 208.300 € (30.000 €-ko laguntza)
- St Joseph parkeko jostalekua: zergarik gabeko 91.400 € (45.000 €ko laguntza)
- Chantecler ama eskola publikoko jostalekua: zergarik gabeko 26.500 €
- Kirol anitzeko plataforma: zergarik gabeko 51.000 € (17.400 €-ko laguntza)
- Skateparka: zergarik gabeko 187.500 € (64.100 €-ko laguntza)
- Kanbo behereko eskolako eraikina: zergarik gabeko 253.000 € (75.000 €-ko laguntza)
- Arnaga – Veber margolanak: zergarik gabeko 127.000 € (101.600 €-ko laguntza)

- Arnaga – Parkeko zuhaitzen segurtatzea : 20.800 € (13.500 €-ko laguntza)
  - Eliza – 1. faseko konponketak + berogailua: zergarik gabeko 237.000 € (157.570 €-ko laguntza)
  - Errotadun materialaren eskuratzea: 191.600 € (50.000 €-ko laguntza)
  - St Michel Garikoitz karrikako lurraren eskuratzea: zergarik gabeko 700.000 € (350.000 €-ko laguntza)
  - Bidea - hiri antolaketak: zergarik gabeko 333.000 € (203.250 €-ko laguntza)
- Ondorioz, 2017 urterako aurreikusiriko inbestimendu osoa 3.552.700 €-koa da, zerga oro barne (zergarik gabeko 3.127.800 €).

#### 4. Aurrekontu gehigarriak:

Saneamendu aurrekontu gehigarriari dagokionez, Auzapez jaunak zerbitzu hori Lyonnaise des eaux-ren esku dela oroitarazi du; finantzaketa hiru diru sartzek bermatzen dute: kontsumituriko m<sup>3</sup>-ari ezartzen zaion saneamendu gainzerga, saneamendu kolektiboaren finantzaketako parte hartzea eta ur garbitzearen emaitzaren arabera prima, Uraren Agentziak kolektibitatearen garbitze sistemak eliminatzen duten etxeetako kutsaduraren arabera kalkulatzeko duena. Funtzionamendu xahutzeak maileguren interesen ordaintzeak osatzen dituzte. Inbestimendu atalari dagokionez, honek toki handia hartzen du eta Auzapez jaunak batzordea bildu beharko dela oroitarazi du, 2017rako aurreikusia den inbestimenduendako diru kopurua 1.400.000 €-koa delako.

Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu gehigarriari dagokionez, funtzionamendu atal bat baizik ez da; hilobiak 54.195 €-ko kopuruarendako erostea aurreikusi da.

#### 5. Orotariko gehigarriak

Auzapez jaunak azaldu du, gehigarri horiek puntu garrantzitsu batzuk agertzen dituztela eta 2017 urteko aurrekontu nagusiak bozkatu ahal izateko elementu guzien informazioa ukaitea ahalbideratuko dutela: ratioak, finantza laguntzak, fiskalitatea, prezioak, esleituriko diru laguntzak, HELEParengandik jasoriko ordainak eta 2016-2020 urteen arteko zorra. Auzapez jaunak zorpetzeari dagokion herriaren ratioa 0,43koa dela dio. Ratio horrek ordaintzeko gelditzen dena eta herriaren funtzionamenduari dagokion diru sartzek parekatzen ditu. Zehazten duenez, letik gorakoa den ratio batek kolektibitatearen zorra, bere irabaziekin konparatuta, biziki handia dela erran nahi du. Kanboko herriaren gehiegizko zorpetzerik ez dela zehaztu du. Fiskalitateari dagokionez, Euskal Hirigune Elkargoak nahi duen neutralizatzeko fiskala kontuan hartzeko, Kanbon zergen tasak apalduko dira.

Finitzeko, Auzapez jaunak azaldu du txosten horren aurkezpenak legea betetzen duela, bere iritziz NOTRe legeri eta 2016ko ekaineko aplikatze dekretuari esker, herriko kontseilari guziendako sistema hobea dena.

Herriko Kontseiluak, kontseilari guziek eskuratu duketen eta deliberoari gehituko zaion aurrekontu orientabideen txostenean oinarritu den aurrekontu orientabidearen inguruko eztabaida gauzatu dela gogoan hartu du.

## 6 – 2016ko emaitzen esleitzea

Auzapez jaunak ondoko esleitzeak proposatu ditu:

- 1.251.901,94 €-koa den 2016ko aurrekontuko funtzionamendu diru sartzeen irabazia, 2017ko aurrekontu nagusiari dagokion inbestimendu diru sartzeko gisa esleitzea,
- 56.811,69 €-koa den 2016ko saneamenduaren aurrekontu gehigarriaren ustiatzearen irabazia, 2017ko aurrekontu nagusiari dagokion funtzionamendu diru sartzeko gisa esleitzea,
- 41.731,44 €-koa den 2016ko hilobi-kolunbarioen aurrekontu gehigarriaren funtzionamendu

defizita, 2017ko aurrekontu nagusiari dagokion funtzionamendu xahutze gisa esleitzea.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

## **7 – 2016ko lur gaineko politikaren bilana**

Auzapez jaunak, Lurralde Elkargoetako Kode Nagusiaren arabera Auzapez orok aitzineko urteko lurraren gaineko politikaren bilana urte guzietz aurkeztu behar duela oroitarazi du.

1. Aurrekontu orokorra

Ez da eskuratzerik egon. Lur saltze bakarra izan da, Donapetria lotizamenduan bizi diren partikular batzuei 3.525 €-tan salduriko 47 m<sup>2</sup>-ko hedadura duen lur batena.

2. Hilobi-kolunbario aurrekontu gehigarria

Hauts-kutxa hobi batzuen eskuratzea 1.425 €-ko zenbatekoarendako

5 hilobiren eta kolunbario baten saltzea 13.545,83 €-ko zenbatekoarendako.

Auzapezak, herriaren lur gaineko politikari buruzko informazioaz ari garenez bozketarik ez dela izanen azaldu du.

## **8 – Diru laguntza eta herriko diru esleitze finkoen aitzinatzea**

Auzapez jaunak oroitarazten duenez, urte guzietz, aurrekontuaren berant bozkatzera dela eta, antolakunde ezberdinek herriarengana jotzen dute diru aitzinak eskuratzeko:

– Turismo Bulegoari 35.000 €-ko diru laguntza aitzinatzea onartu da, hots, 2016an esleituriko diru laguntzaren %20,

– GEHZari 45.000 €-ko diru laguntza aitzinatzea onartu da, hots, 2016an esleituriko diru laguntzaren % 70,

– OGECari 35.000 €-ko diru esleitze finkoaren zati bat aitzinatzea onartu da, hots 2016an esleituriko zenbatekoaren %50

– Errobi Ikastolari 15.000 €-ko diru esleitze finkoaren zati bat aitzinatzea onartu da, hots, 2016an esleituriko zenbatekoaren % 50.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du. OGECeko lehendakari denez, Barbier jaunak ez du bozketan parte hartu.

Aho batez onartua.

## **9 – Euskal Hirigune Elkargoa: euskara eta euskal kultura mailako eskumen hedatzea**

Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakariorde gisa Auzapez jaunak dio, urgentziaz deliberatu behar dela, bereziki euskarari eta euskal kulturari dagokionaz, Euskal Hirigune Elkargoaren agertzearekin Hautetsien Kontseilua eta euskal kultura sustengatzen duen herriarteko



Sindikatuak ordezkatu behar baitira. Elkargoak eskumenak bereganatu ditu eta herriek bi hilabete dituzte deliberatzeko. Euskal Hirigune Elkargoak Euskararen Erakunde Publikoko Kontseilurako hiru ordezkarik izendatu beharko ditu. Kultura eskumen horren nondik norakoak begiratu behar dira, ez baitira herriak eskumenen eskualdatze oso horrekin batera eskumenik gabe utzi behar, herriek kultura elkarteei diru laguntzak esleitzeko ahalmena atxiki behar dute dena Euskal Hirigunera igorri gabe.

Mitxelena jaunak tokiko Herri Elkargoek plantan ematen zuten kultura politikari buruzko hausnarketa egin du, Harri Xuri bezalakoak adibidez, eta orain nork kudeatuko dituen galdegin du.

Auzapez jaunak erantzun dio Herri Elkargoek kudeatzen zuten guzia automatikoki Hirigune Elkargoaren esku geldituko dela. Hautuzko eskumena denez, Hirigune Elkargoari dagokio komunitate interesa deitzen dena ontsa definitzea. Baina herri bakoitzak euskararen aldeko ekintza bat garatzen du eta ez du dena hirigune mailan utzi nahi.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua, Camille Jenvrin jaunaren aurkako bozarekin.

## **10 – Euskal Hirigune Elkargoa: herriko Eskualdaturiko Kargen Tokiko Ebaluatze Batzordeko (EKTEB, frantsesez CLELC) ordezkarien izendatzea**

Auzapezak azaldu du eskumen bat herriartekoaren esku gelditzen den bakoitzean, eskualdaturiko kargak eta horren ondorio diren diru ordainak ebaluatu behar direla. Euskal Hirigune Elkargoan 158 herri daude eta, herri guztiak ordezkatuak izan daitezten, 158 kide titular eta beste hainbeste ordezko behar dira.

Herri bakoitzak titular bat eta ordezko bat izendatu behar du.

Auzapezak gehiengoko Christian Devèze jauna titular gisa, eta Frédéric Bardin jauna ordezko gisa proposatu ditu.

Bacardatz jaunak Errobi Herri Elkargoan ordezkoa zela ohartarazi du.

Auzapez jaunak bi leku baizik ez direla eta, aski logikoa denez, EKTEBen gehiengoko bi hautetsi izatea nahi duela erantzun dio.

Bacardatz jaunak logikoa dela baina Herri Elkargoan ordezko gisa hautatua izan zela erran du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua.

Aurka bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

## **11 - Euskal Hirigune Elkargoa: hirigintza dokumentuen sortze edo berrikustea**

Bardin jaunak dio, Herriko Kontseilua, heldu den urte hastapenean eskumenak Hirigunearen esku gelditu baino lehen, herriak abian ezarri duen Tokiko Hirigintza Planaren berrikuste prozedura Euskal Hirigune Elkargoaren esku uztearen alde agertzea gonbidatua dela. Kanboko herriak, 2014ko uztailearen 21eko delibero bidez, Tokiko Hirigintza Planaren berrikustea bozkatu zuen.

2017ko urtarrilaren 1az geroztik eta Euskal Hirigune Elkargoaren sortzearekin, azken hau “Tokiko Hirigintza Plan, hirigintza dokumentu eta herriko mapa” mailan eskuduna da.

Hirigintza kodeko L.153-9 artikulua dio Hirigune Elkargoak bere sortzea baino lehen abian emaniko prozedurak bururat eramatea erabaki dezakeela, Elkargoak prozedura horiei dagozkien agiri eta deliberoetan herriaren tokia eskubide osoz hartuko duelarik.

Kanboko herriak bere THParen berrikustearekin (araudia eta zonakatzearekin) aitzina segitzen du, baina ez du jada hauek bozkatzeko eskumenik. Bozka hori Euskal Hirigune Elkargoan gauzatuko da eta azken hau da, 2017ko urtarrilaren 1az geroztik Axe et Site kabinetea ordaintzen duena.

L.153-9 artikulua zehazten du herriak prozedura bat abian emana duelarik honen adostasuna beharrezkoa dela.

Auzapez jaunak zehazten du eskumena Hirigune Elkargoaren esku denez herriak ez duela hauturik. Kontua aitzinetik eginiko lana erabiltzeko eta segitzeko baimena ematean datza. Delibero bat behar da horretarako.

Dor jaunak bere buruari galdegin dio, eskumena Hirigunearen esku geldituko den mementotik herriak THP horri buruzko zein erabaki mota har dezakeen. Erran nahi baita, Hiriguneak bozkatuko duenez, eztabaidek segituko ote duten eta bidean den THPrekiko zein moldetan eginen den. Horri buruzko xehetasunak galdegin ditu.

Bardin jaunak herriak THP prestatuko duela eta, zonakatzeari edo araudiari dagokionez, eztabaidatzen segituko duela baieztatu dio. Hirigune Elkargoa herriaren zentzuan joateko engaiamendua hartu duela zehaztu du. Haatik, bilkura ofizialendako deialdiak ez ditu gehiago herriak zabalduko Hirigune Elkargoak baizik, berrikuspena honen menpe baita.

Auzapez jaunak gehitu du SCOTak (Lurralde Koherentzia Eskemak) herria jadanik aski behartzen zuela eta orain berriz herriak iritzia emanen duela. Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariak, Hiriguneak herriek emaniko iritzia beti jarraituko duela segurtatu du. Auzapez jaunaren ustez, plano formalean, 1982ko deszentralizazio legearen baitan zen hori, deszentralizazioaren 1. urratsa; hirigintza dokumentuak Herriko Kontseiluek bozkatuko zituztela erratea irabaziriko eskubide bat zen, ordura arte Prefetari iritzia baizik ez baitzitaion ematen. Azken honek hirigintza dokumentuak finkatzen zituen. Gaur egun, etorkizuneko HTHP horiekin desberdina da, eskumena herriarteko mailan gelditzen baita.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **12 – Herriko burtsak**

Saint Jean jaunak oroitarazi du, iragan otsailaren 8an gizarte gaietako batzordea bildu zela 2016-2017 ikasturterako herriko burtsa galdeak aztertzeko.

Hemezortzi txosten jaso dira. Hamazazpi estatuko burtsaren jabe ziren. Batzordeak jasotzen duten estatuko burtsen %15a esleitu die. Hemezortzigarren dosierra, estatuko burtsari bide ematen ez dien erizaintza Institutuan izena eman duen ikasle batena zen baina, familia horren familian koziante apala kontuan harturik, batzordeak herriko burtsa esleitzea erabaki du.

Herriko Kontseilua 6.833 €-koa den hemezortzi herriko burtsa horien esleitzearen alde agertzera deitu da.

Auzapez jaunak batzordearen aldeko iritzia egon denez galdegin du.

Saint Jean jaunak baiezkoarekin erantzun dio, aho batez alde agertu direla.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

### **13 – Turismo bulegoa: 2017-2019 helburuei begirako hitzarmena**

Irastorza jaunak oroitarazi du, Kanboko herriaren eta Turismo bulegoaren 2014tik 2016rako helburuei begirako hitzarmena 2016ko abenduaren 31n bururatu zela. Ondorioz, 2017tik 2019ra doan hiru urteko hitzarmen berri bat hitzartzea komenigarri da, hautetsi guziek eskuratu duketen modeloaren arabera.

#### Aitzin adierazpena:

Kanboko herriak, bere turismo eskumenean ziren zerbitzu publikoko egitekoak 2014ko urriaren 16an Pirinio Atlantikoetako Prefetak I mailan sailkatu zuen Kanboko Turismo Bulegoaren esku utzi dituela onartzen du.

Turismo Bulegoak, Departamenduko eta Eskualdeko Turismo Batzordeekin elkarlanean, zerbitzu publikoko egiteko horiek gauzatzen direla bermatzen du. Tokiko turismoaren garapeneko partalier desberdinen esku hartzearen koordinaketa bermatzen laguntzen du eta ekipamendu turistikoaren proiektuendako kontsultatua izan daiteke.

Herri batek Turismo Bulego baten esku utz ditzakeen misio osagarrien araudiak barne hartzen ditu:

- Herrian turismo politikaren parte zabal baten lanketa egitea eta plantan ezartzea,
- Turismo garapenerako tokiko ikerketa eta programak
- Turismo edo aisialdi muntaduren eta ekipamenduen ustiatzea,
- Festa edo kultura ekitaldien antolatzea,
- Turismo zerbitzuen merkaturatzea, Turismo Kodeko II Liburuko 1. Tituluaren xedapenen baitan.

#### Helburua:

Honako hitzarmenaren xedea da, Kanboko herriak Kanboko Turismo Bulegoari (KTB) esleitzen dizkion diru laguntzen helburua, zenbatekoa eta baliatzeko baldintzak definitzen ahalbidetzea, honek bere egitekoa gauzatu eta bere sailkapena lehen mailan atxik dezan.

Honako hitzarmenak bi aldeek harturiko engaiamenduen euskarri gisa ere balio du, aitzin adierazpenean aipaturiko helburu guziak bermatu ahal izateko.

#### Esparru orokorra eta araudi esparrua:

Turismo mailako eskumenean partekatzea xedatzen dituen 1992ko abenduaren 23ko 92-1341 legearen arabera, Kanboko herriak, herriko lurraldeko harrera, informatze eta promozio turistikorako zerbitzu publikoaren egitekoak 2014ko urriaren 16an Pirinio Atlantikoetako Prefetak I mailan sailkatu zuen KTBren esku delibero bidez utzi ditu.

Irastorza jaunak honako hitzarmenak aitzinekoaren ondoan dituen desberdinatsunak azaldu ditu:

- Barne eta kanpotik lurraldeko informazioaren hedatze hobea bermatzea. Astean behin, Turismo Bulegoko langileak Kanboko Termetara joaten dira Kanbon iraganen diren ekitaldi desberdinen berri ematera.
- Turismo Bulegoaren harrera egoitzak berrantolatzea, bezero kuristaren eta turistikoaren jokamolde berriak kontuan hartuz.
- Turismo eta Elbarritasuna labela eskuratu.

- Internet bidezko salmenta ahalbidetuko duen eta sarearen erabiltzaileen jokamoldeak kontuan hartuko dituen webgune berria sortzea. Euskal Mendiarekin webgune berri bat sortuko da eta, Turismo Bulegoak laguntzak eskuratuko dituen, prezio apalean sortuko da.
- Turismo Bulegoaren Karta grafikoa berriz egin eta harrerarako argitalpenak berriz pentsatu.
- Saillaturiko estazioen eta Turismo Bulegoaren arteko hitzarmena plantan eman.
- Zentralaren jabeendako bi urteko agintaldi kontratua plantan eman, erreserba galde goiztiarrei erantzun ahal izateko eta, gisa horretan, bezero gatibuak atxikitzeke.
- Turismo Bulegoaren “print” publizitate konpainiak betikotu eta webguneko harreraren eta harrera pantailen erabilpena garatu.
- 2017 urterako herriak esleituriko diru laguntza, 193.000 €; 2018 urterako 195.000 € eta 2018 urterako 197.000 €. Emendatzea, Kanboko Turismo Bulegoarekin hitzarmenak zituzten eta gaur egun, 4.000 € inguruko diru sartzea galaraziz, sortu den herriarteko Bulegoan diren herrien galtzearekin lotua da. Horri, lansarien bilakaerari lotua den langile fresen emendatzea gehitu behar zaio. Irastorza jaunak dio Turismo Bulegoak bere burua % 52an finantzatzen duela eta ez dela beste Turismo Bulegoen kasua.
- 2017an, telefonogunearen aldatzea, webgune berri baten sortzea.
- 2018-2019an, eremuaren berrantolaketa (tresna numerikoak, edukien sortzea, harrera altzariak, kontrol gelako lanak etab.)

Auzapez jaunak oroitarazi du 2014-2016 urteen artean herriak Turismo Bulegoari 176.206 € ematen zizkiola. Irastorza jaunak erran bezala, emendatzea justifikatua da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **14 – Famili baratzeak**

Goytino jaunak dio familia baratzeen sortzea ontzat eman eta alokatze kontratua eta barne araudia onartu behar dela. Familia baratzeak sortzekotan dira, lanak fite bururatuko dira, gakoan ematea hilabete bukaeraren eta apirila erditu artean izanen da. Lursailen esleitzea hautagaitza txostenetan oinarriturik egin da. Txosten horiek “garapen iraunkorra eta energia” batzordean aztertu ziren. Kontuan hartu diren irizpide nagusiak ondoko hauek dira: familia egoera, hautagaiak apartamentuan bizi zirela, familia desberdinen egoera fiskala. Hogeita bost lursailendako hogeita hamabost galde izan da. Lursailen esleitzea proposatzeko ez da arazo handiegirik izan.

Goytino jaunak zehaztu du, araudia Frantziako herri desberdinetako familia baratzetako araudien bilduma bat dela. Araudia batzordean aztertu da eta 13 artikuluan aldaketa bat egin nahi du. Hartan, baratzeen bazterrean bidexka bat atxikia izan dela agertzen da, Haurtzain auzotik geltokirako bidean pasaiatzen den jendea hortik iragateko gisan. Agertzen zen galdera zen, ea herriak jendeari eta berezikiago baratzezainei autoz sartzeko baimena ematen zien, materiala deskargatzeko edo baratzekeko mozkinak kargatzeko. Kasua da bidexka ordokitua izan dela eta ondorioz ez dela gehiago autoz iragaitean segurtasun sentipena ematen zuen babes naturalik.

Beraz, Goytino jaunak proposatu du 13 artikulua moldatzea eta jendea autoz iristeko debekua ezartzea, salbuespenez izanik ere, bide horretan istripu arazoak ekiditeko gisan.

Auzapez jaunak, noizean behin bere lursailera motokultore bat eraman beharko lukeen adineko baten adibidea hartu du eta nola egin beharko duen galdegin.

Goitino jaunak erantzun dio bere lagunak lagundu beharko dutela. Ez duela behereko pentzera eror dadin nahi.

Auzapezak uste du herriak araudi hori finka dezakeela baina ez dela beti osoki errespetatuko. Noizean behin motokulture, ura eta abar eraman beharko duenik izanen da.

Goytino jaunak gehitu du baratzeen bazterrean bidexka bat egitea aurreikusi dela, Haurtzain auzoko jendea geltokiraino joateko ahala ukan dezan. Jendea segurtasun arrazoiengatik pentzera erortzea gogorra litzaioke. Bidexka hori oinezkoendako izaten segitzea eta motordun ibilgailu guziendako debekatua izatea nahiago du.

Larronde jaunak galdegin du tokiko biztanle diren artisauekin bilkura bat egitea aurreikusi den.

Goytino jaunak ezetz baina bat aurreikusiko duela erantzun dio.

Auzapez jaunak denak bide hori oinezkoendako izatearekin ados diren galdegin du.

Goytino jaunak gehitu du, eskari hori baratzeen bidexkatik busti gabe pasatzeko aukera galdegin duten Haurtzain auzoko jendearen eskari bat dela.

Auzapez jaunak azaldu du Haurtzainera buruz doan Departamendu Errepidea bihurgunetsua eta hertsia dela eta jendeak erraten duela euria delarik haurrak bide gainean ibiltzen direla. Pasaia biziki guti denez ez da espaloirik egitea pentsatzen. Militar kai zaharra baliatzea proposatu zen. Auzapez jaunak, militar kai horretan oinezkoendako pasabide bat antolatzea zentzuzkoa dela pentsatzen du.

Goytino jaunak erantzun dio Magis jaunarekin aipatuko duela kosturik apalenean zer egin daitekeen aztertzeke.

Aiçaguerre andereak dio jadanik lurra kendua izan dela.

Goytino jaunak erantzun dio, egon zen lur kentzea oraindik aski biguna zen lur hartan ur oditeria pasatzeko egin zela. Autoen debekuari dagokion barne araudiko artikulu aldatua irakurri du. "Pasaia ororendako libro izan behar da eta baratzezainen ibilgailuak materiala deskargatzeko edo baratzekeko ekoizpenak kargatzeko biziki salbuespenez soilik sar daitezke" erranaldia ezabatu eta "motordun ibilgailuek familia baratzeen bazterrean den bidexkan sartzea hertsiki debekatua dute, mantenerako herriko tresnak izan ezik (ibilgailuak, epai-makina)" erranaldiaz ordezkatzeko proposamena luzatu du.

Goytino jaunak dio, taldean aipatu duten urteko eta lursaileko tarifa 75 €-koa dela; horri uraren kontsumoa gehitu beharko zaio baina, Kanbon uraren prezioa m<sup>3</sup> bakoitzeko 3 eta 4 € artekoa izanik, ez da biziki kario aterako. Kontagailu nagusi bat izanen da, abonamendua herriak bere gain hartuko duena, eta uraren fakturatzeari dagokionez, baratzezain bakoitzak iturriari lotu beharko dion kontagailu indibiduala ukanen duela eta urtean behin kontagailuaren jasotzea eginen dela zehaztu du.

Aiçaguerre andereak erran du proiektu hori bere taldearen gustukoa dela baina kokagunea, lurraren konfigurazioa ez dela biziki egokia. 75€-ko tarifa ez da batzordean aipatua izan.

Jougleux andereak ihardetsi dio baietz, gaia batzordean aipatua izan dela.

Goytino jaunak ezekoarekin erantzun dio.

Aiçaguerre anderearen iritziz, hunkitua den jende mota ikusirik, 75 € kolpez ematea garestiegi da.

Larronde andereak ordainketa bi alditan eginga izan dadin proposatu du.

Goytino jaunak ez du arazorik ikusten. Baratzeen erdian bizikidetzarako eremu bat ezartzea aurreikusitako delako zehaztu du, zeinean hamar pertsona har ditzakeen mahai bat eta, Haurtzain auzoaren aldeko bazter batean, nehor jenatuko ez duen beste mahai bat ezarriko diren. Kokalekuari dagokionez, ez da batere ados Aizaguerre andereak erranikoarekin, xoragarria dela deritzo. Egi da, hastapen batean, lurrak harri anitz zuela baina eginga izan den lur gehitzearekin lursailak lantzeko gisan emanak izan dira eta hortik pasa diren guztiak lurraren kalitatearekin pozik agertu dira.

Jougleus andereak gehitu nahi du urte batendako 75 €-ko zenbateko ez zaiola gehiegizkoa iruditzen, are gehiago esleituriko lursaila hesiturik, ttattola batekin eta ur kontagailu batekin esleitzen delarik. Aitzitik, biziki zentzuzkoa dela deritzo. Garestiago eta batere muntadurarik gabeko beste familia baratzerik bada.

Aizaguerre andereak erantzun dio anitzez merkeagoak eta biziki ontsa ekipatuak direnik ere badela. Kokalekuari dagokionez, bere taldeak uste du ohargarria eta biziki ederra dela baina mota horretako proiektu batendako ez dela egokia.

Auzapez jaunak dio horren erantzuna biharko baliatzaileek emanen dutela ontsa den edo ez erranen dutelarik.

Bacardatz jaunak galdegin du lursailak ekipatzeko ttattolak non erosiko diren.

Goytino jaunak lursail bakoitzean ttattolak emanen direla baieztatu du. Hastapen batean hesien instalatzea egin duen Atherbea elkartearengana jotzea pentsatu bazen ere, aurkeztu duten aurrekontua hastapeneko aurreikuspenak gainditzen zituen. Ondorioz, ttattolak supermerkatuan erosiko dira.

Bacardatz jaunak Kanboko komertsantengana jo denez galdegin du.

Goytino jaunak erantzun dio Kanboko saltegi handi batengana jo duela baina onek ez zuela halakorik proposatzeko. Beraz, herria, biziki ezaguna ez den interneteko saltzaile handi batengana joan da, eskaintzen zituen prezioak biziki interesgarriak izanik, aurrekontua ez gainditzea ahalbidetzen zuena.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aizaguerre andereak, Pantxo Michelena jaunak.

## **15 – PAES: manatze taldean kidetzea**

Goytino jaunak oroitarazi du herria PAESeko (Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua, frantsesez SDEPA) kide dela eta, energiaren merkatuaren liberalizazioaz geroztik, PAESek eroste talde batean sartzeko proposamena luzatu ziola elkargoari. Erose taldearen baitan PAESak negoziatu dituen tarifek dirua aurrezteko ahalbidetu dute, eskuraturiko prezioa batz besteko % 10 apalagoa baita.

Akitania Berria eskualdea sortu zenetik, departamendu batzuetako antolakunde publiko eta

pribatuek Eskualde handiarekin bat egin dute eta eroste taldeaz baliatzen ahalko dira. Horretarako, PAESak, entitate berri horiek eroste taldearekin bat egiten ahalko dutela ontzat ematen duen delibero bat egon dadin galdegin du. Gainera, orain arte, energia taldean erosten zelarik pertsona edo instituzio bat arduratzen zen prezioa negoziatzeaz eta horrek kostu zenbait sortzen zuen. Egun, tarifak negoziatzen dituen sindikatua energiaren prezioaren bidez ordainduko da, erran nahi baita, kostu hori negoziaturiko energiaren eroste prezioaren baitan sartzen dela eta energia hornitzen duenak PAESari diru suma bat emanen diola. Ondorioz, energia saltzen duen instantziak zenbateko baliokidea ordainduko dio sindikatuari.

Bacardatz jaunak delibero proiektuan lehen aldaketa bat egiaztatu du: “Kanboko herriaren kidetzea baieztatu, eraginkortasun eta energia ustiatze mailan energia, lan/hornidurak/zerbitzuak erosteko”. Orain arte kidetze hori energia erostearendako baizik ez zen eta hornidura eta lan horiek zertan datzaten galdegin du. Herriak lanak egiteko engaiamendua hartzen duelarik, esparru akordiorik izenpetuko diren jakin nahi du. Eta, delibero proiektu honen azken aitzineko paragrafoan argiki agertzen da: “atxikiak izan diren enpresekin, merkatuak, esparru akordioak edo herriaren hurrengo merkatuak betetzera engaiatzea”. Lan eta zerbitzuen hornidurari buruzko galdera errepikatu du.

Goytino jaunak erantzun dio ez dakiela eta hola den jakiteko galdera pausatuko duela.

Bacardatz jaunak galdegin du, ea lanpak eta anpoilak erosteaz ari garen, herriak kontsumigarrietan bere independentzia galduko duela erranez. Zerbitzuendako, trantxadez ari garenez ere galdegin du.

Goytino jaunak ihardetsi dio, materialaren erosteari eta berezikiago lanpei dagokionez, kudeaketa herriaren esku dela. Gaineratekoarendako, lan/hornidurak/zerbitzuak zertan kokatzen diren jakiteko galdera pausatuko du. Bere ustez, argiztatze publikoaren kudeaketa eskumena PAESaren esku utzi duten herriak hunkitzen ditu, baina hori ez da Kanboren kasua.

Bacardatz jaunak dio, kasu horretan erranaldiaren parte hori ezabatu behar dela, energia erostearen aipamena baizik ez atxikitzeke. Zehazten duenez, esparru-akordioa izenpetua izan delarik, herria esparru horren baitan diren lanak abian ezartzen baditu, izenpeturikoa betetzera derrigortua da. Energia erosteari dagokionez gauza bera da, herriak kontaketa bat edo eskuetaritze puntu bat gehitzen badu, esparru-akordioan sartzea derrigortua izanen da. Trantxada lanen edo lurpean ezartze hedatze lanetan, herria zein esparru-akordioen baitan izanen ote den galdegin du.

Goytino jaunak galdera pausatuko duela erantzun dio.

Hitzarmeneko 9 artikuluan den funtzionamendu fresei dagokionez, Bacardatz jaunak Kanboko herria zein estratutan den eta herriaren kontsumoa jakina den galdegin du.

Goytino jaunak ihardetsi dio gai hori ikertzekoa dela, izan ere, herriak herriko eraikinetan berritze lanak egin dituenetik, kontsumoaren bilakaera segitzea garrantzizkoa baita. Baina herriaren finantza parte hartzearen kalkuluaren inguruko erantzunik ezin diola eman gehitu du. Begiratu beharko da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Bacardatz jaunak dio, bere galderei erantzunik ukan ezean ezin duela alde edo aurka agertu.

Auzapez jaunak Goytino jaunari zein ikuspuntu duen galdegin dio

Goytino jaunak erantzun du puntu hori ondoko Herriko Kontseilurako utzi beharko dela.

Auzapez jaunak, gai-ordeneko 15. puntua ondoko Herriko Kontseilurako uzten dela baieztatu du.

## **16 - “Kanboko Baimena” deritzon meategi bilaketarako baimen eskusiboa**

Auzapez jaunak zehaztu du, gai hori gai-ordenean sartu nahi izan duela. Ezpeletako manifestaldian ziren hautetsietarik zela erran du. Herriko kontseilari guzien esku utziriko oharra biziki ontsa egin da eta otsailaren 15ean, bidean den ikerketaren baitan, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari Jean-René Etchegarayri eta industria Ministroari igorri zitzaion gutunean oinarritua da. Gaur egun inkesta bururatu da baina, Auzapez jaunak, Herriko Kontseiluak “Kanboko Baimena” deritzon meategi bilaketarako baimen eskusiboaren aurkako iritzia berriz ager dezan nahi du. Proiektu horrek Lapurdiko hamaika herri, Kanboko herria barne, hunkitzen dituela oroitarazi du; Hirigune Elkargoak, iragan otsailaren 24ko Elkargoko Kontseiluan molde berean deliberatu zuen eta Auzapez jaunak delibero bera hartu du. Elkargoko Kontseiluan, honen lehendakariak galdeginik, Auzapez jaunak hitza hartu zuen ikerketa horri buruzko bere sentimendu biziki ezkorra agertzeko eta proiektuak ez zuela aitzina egin behar eta ez zuela aitzinera eginen, gobernuaren erabakia edozein zela ere, erranez finitu zuen.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei galdegin die mozio hori onartzeko prest diren, ondotik industria Ministeriora, Prefetari eta Suprefetari igorriko den deliberoa izanen dena.

Aiçaguerre andereak eztabaidarik egon den galdegin du, zeren hastapenean, eztabaidatu behar zenez, Auzapez jaunak duda handiak soilik agertu baitzituen.

Auzapez jaunak erantzun dio, hastapenean aldeko iritzia agertu zuen Ezpeletako auzapezaren jarrera aipa zezakeela. Herrien iritzia Kanboko festen denboran, agorriean, galdegina izan zela eta postu horretan berria zen Ezpeletako auzapezak aldeko iritzia eman zuela oroitarazi du. Gehitu du, bestalde, bere aldetik lehen mementotik duda handiak agertu zituela eta, ondotik, Errobi Herri Elkargoaren baitako auzapezen bilkuran denek aurkako iritzia agertu zutela, zeina bere boza ere jaso zuen ezezko deliberoan bilakatu zen. Gai horren inguruan gauzak biziki argi dira. Hastapenean herriak ez zuen informaziorik eta hori da Estatuari lepora dakiokiena, aferari dagozkion xehetasun guziak eman gabe iritzia eskatzea. Orain elementu guziak ezagutzen dira eta ez dira hamabost egun soilik, batzuek sinestarazi nahiko luketen bezala, Auzapez jaunak iritziz aldatu duela. Auzapez guziak proiektuaren aurka dira aspalditik, Ezpeletakoa barne. Euskal Hirigune elkargoak egin duen bide beretik, Auzapez jaunak mozio proiektu hori bozkatzeko proposamena luzatu du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **17 – Auzapezaren erabakien komunikatzea**

Auzapez jaunak oroitarazi du ez duela gehiago hiriko erosteko lehentasunezko eskubidea baliatzen ahal; beraz hilerriko kontzesioak baizik ez dira gelditzen. Lurralde Elkargoetako Kode Nagusiko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko Kontseiluaren deliberoaren arabera, Auzapez jaunak 2017ko otsailaren 4aren eta 17a artean hilerriko kontzesio ematei eta berriz hartzei buruz harturiko erabakien berri eman du:



- 15 urterako kontzesio erostea: 0
- 30 urterako kontzesio erostea (+ hilobia): 0
- 3 urterako kontzesio erostea (+ kolunbarioa): 0
- 15 urterako kontzesio erreberritzea: 1
- 30 urterako kontzesio erreberritzea (+ hilobia): 1
- doako lursail berreskuratzeak: 3

## **18 – Orotarik**

Auzapez jaunak ondoko Herriko Kontseilua martxoaren 27an iraganen dela jakiterat eman du, zeinean funtsezko puntua 2017 urteko aurrekontuen bozketa izanen den. Tenorea berantago erabakiko da, 19:00ak edo 20:00ak. Denak libro diren begiratu beharko da, egungoan jende anitz eskas baitzen. Bilkura deialdiak zehaztuko du tenorea. Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko saioa finitutzat eman du 21:40ean.